



Fokalizazio estrategikoa

Klima Aldaketaren aurkako Euskal

Estrategia lantzeko

Laburpen dokumentua

2015eko urtarrila



**AURKIBIDEA**

1.	SARRERA	1
2.	TESTUINGURUA	7
3.	AZTERKETA ETA LEHENTASUNAK JARTZEA: ALDAKETAREN GAKOAK	9
4.	KONPROMISO, IKUSPEGI, ERRONKA ETA HELBURUEN DEFINIZIORANTZ	12



1. SARRERA

“Aurrez aurre ditugun bi erronka nagusiak pobrezia gainditzea eta klima-aldaketa kudeatzea dira. Horietako batean huts egiten badugu, bestean ere huts egingo dugu.”

Sir Nicholas Stern

Klima-aldaketa gizateriak aurrez aurre dituen erronka handienetako bat da, eta, horrela izanik, planetako sistema sozial, ekonomiko eta politiko guztien ahalegina exijitzen du.

Klima-aldaketa oso gai konplexua da, batez ere hiru ezaugarri hauengatik:

1. Klima-aldaketaren gai batzuei lotutako **ziurgabetasuna**¹ eta erraz uler daitezkeen loturak ezartzeko zailtasunak. Horrek barne hartzen ditu estatistikari lotutako maila eta tipologia ugari, analisietan erabilitako teknikaren zehaztasuna, edo gai batzuei buruzko ezagutza sakonaren falta.

IPCCren 2007ko txostenak berak honela definitzen du gai hau:

“Balio bati buruzko ezagutzarik ezaren mailaren adierazpena (adibidez: klima-aldaketaren etorkizuneko egoera). Ziurgabetasuna informazio faltaren ondorioa izan daiteke, edo ezagutzen denaren edo ezagutu daitekeenaren inguruko desadostasunen ondorioa. Jatorri ugari izan ditzake, hala nola, datuetako errakuntza kuantifikagarriak, anbigutasunez definitutako kontzeptuak edo terminologiak, edo giza jokabideen proiektzio zalantzatsuak. Ziurgabetasuna balio kuantitatiboen bidez adieraz daiteke (adibidez: simulazio batzuen bidez

¹ IPCCk (Klima Aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldea) honela definitzen du ziurgabetasuna: balio baten inguruko ezagutzarik ezaren gradua (adibidez: klima-aldaketaren etorkizuneko egoera). Ziurgabetasunak zenbait jatorri izan ditzake, hala nola: datuetako errakuntza kuantifikagarriak, kontzeptu edo terminologiaren definizio anbiguoak, edo giza jokabidearen inguruko aurreikuspen ez-zehatzak. Horrenbestez, ziurgabetasuna neurri kuantitatiboetatik etor daiteke; adibidez: modelo batzuen bidez kalkulaturako balio multzo bat; edo baieztapen kualitatiboetatik; adibidez: aditu talde baten iritzia bitartez lortutakoak. Hala, aurreko definizioaren arabera, ziurgabetasuna hiru dimentsioren arabera sailka daiteke: izaera, maila eta jatorria.



kalkulatutako balio multzo bezala), edo modu kualitatiboan (aditu talde batek adierazitako iritzi moduan, adibidez) ”.

Ziurgabetasunak -eta hori probabilitateen bidez adieraztea, inpaktuen inguruan planteatzen diren eszenario desberdinentzat- konplikatu egiten du erabakiak hartzeko prozesua. Horren adibide garbi bat da nola heltzen zaien muturreko gertaerei, hots, oso probabilitate txikikoak izan arren planeta osoko biziarentzat ondorio katastrofikoak izan litzaketen eta –hortaz- kontsideratu behar diren muturreko gertaerei.

2. Klima-aldaketari lotutako inpaktuei dagokienez, **desberdintasun izugarria** dago herrialde garatuen eta garapen bidean dauden herrialdeen artean, eta oso desberdina da, halaber, arazoaren jatorriaz duten erantzukizun maila. Dela garapen bidean dauden herrialdeetako ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-sistemen erresilientziarekin (shock bat gainditzeko gaitasuna) zerikusia duten kontuengatik, dela espero diren inpaktuen gogortasunagatik, badakigu herrialde pobreenak izango direla inpakturik handienak pairatuko dituztenak.

Aldi berean, baina, eta IPCCk frogatu duenez klima-aldaketa giza jardunaren CO₂ emisioen ondorioa dela (eragile nagusiak erregai fosilen errekuntza eta lurraren erabilerari lotutako deforestazioa dira), garbi dago herrialde garatuek erantzukizun kuota handiagoa dutela. Horretaz ez dago inolako zalantzarik. Badira ñabardura eta eztabaida batzuk hori interpretatzeko moduaren inguruan, baina “erantzukizun komun baina berezia” printzipioa modu zabalean dago onartuta. Beraz, nazioarteko etikaren kontsiderazioak sartzen dira jokoan.

3. Eta **epe luzerako ikuspegia**, bai gertatzen ari diren inpaktuei dagokienez (inpaktuek, gainera, gertatzen jarraituko dute, klima moteltzeko politiken arrakasta zeinahi delarik ere) eta bai emisioak murrizteko politiken eraginkortasunari berari dagokionez. Ezaugarri horrek gai garrantzitsu batzuk argitzea eskatzen du, hala nola, etorkizuneko kostu eta onurei asignatzen zaien balioa (edo etorkizuneko belaunaldiei ere), moteltze- eta egokitze-neurriei



heltzeko une egokiena, edo balizko “itzulerarik gabeko puntuei²” edo “une kritikoei³” buruzko eztabaida ere –une horietatik aurrera, ahalegin guztiak alferrikakoak izango lirateke-. Gai horiek dimentsio etikoa azaleratzen dute, bai belaunaldien artekoa eta bai belaunaldi barnekoa ere. Orobat, beharrezkoa da kontsentsu politiko zabal eta egonkorrak eraikitzea, klima-aldaketari dagokionez, epe luzerako politikak mantendu ahal izateko.

Klimari buruzko politikak **ahaleginak eskatzen ditu erabakitze maila guztietan:** nazioarteko eremutik hasita, mundu osoaren⁴ ahalegin bateratua bermatzeko, tokiko mailaraino, eskualde eta nazio mailetatik pasatuz. Iraganean, aldaketa moteltzeko ekimenei izaera globalagoa egotzen zitzairen, eta inpaktuetara egokitzeko ekimenei tokiko izaera ematen zitzairen gehienbat; orain, aldiz, badakigu klima-politikak bi eremu⁵ horien **ikuspegi integratua** eskatzen duela maila guztietan. Hau da, moteltze-ekimenak eta egokitze-ekimenak maila globaletik tokiko mailaraino dira garrantzitsuak.

Klima-aldaketa moteltzeko politiken inguruko eztabaidan era guztietako kontsiderazio eta balorazioak sartzen dira, politika horiek zona, sektore edo biztanleria talde konkretuen lehiakortasunean izan lezaketen inpaktuari dagokionez, baina **hiru kontsiderazio orokor** egin daitezke:

1. Maila globalean, **klima-aldaketaren inpaktuei lotutako kostuak askoz ere handiagoak dira** moteltze-politiken kostuak baino⁶.

² “Itzulerarik gabeko puntuak” klima-aldaketaren egoerak dira, zeinetan klima-aldaketaren bilakaera geldieztina eta itzuleztina baita (giza eskalako denbora-horizontean).

³ “Une kritikoa” edo “tipping levels” deritzanetan, klima-aldaketa eta haren inpaktuak gertatzen dira berotegi-efektuko gasen emisioen maila igo behar izan gabe, hau da, emisioen mailari eutsi arren klima-aldaketa gertatu egiten da.

⁴ CO₂ emisioek inpaktu berdina dute leku guztietan, hau da, haien emisio-puntua zeinahi delarik ere; orobat, klima-aldaketaren inpaktuak murrizteko ahaleginen eraginkortasuna berdina da leku guztietan, emisioak non murrizten diren alde batera utzita. Ezaugarri horrek funtsezko rola ematen die mundu mailan koordinatutako ahaleginei, eta,aldi berean, ahaleginak beste batzuen eskuetan uzteko tentazioa areagotzen du.

⁵ Asko dira baieztapen hau frogatzen duten arrazoiak, dokumentu honetan irakur daitezkeen bezala. Horien artean, azpimarratzekoak dira: (a) egokitzapenerako ekintza askok moteltze-eragina ere izaten dute, (b) moteltze-ekintzek badute eragina etorkizunean beharrezkoa izango den egokitzapenaren neurrian, (c) bi politiken artean badira sinergiak, baina baita bateraezintasunak ere, eta (d) politika batzuek eragina dute bi gaitetan.

⁶ Stern Txosten deritzanak eta IPCCren lanek magnitude horiek ezarri dituzte, eta badago adostasun zabala haien inguruan.



2. **Maila agregatuan, lehiakortasunaren gaineko inpaktua ez da esanguratsua** (batez ere Europaren kasuan); eskualde mailan, aldiz, batez ere eskualde oso industrializatuetan, inpaktuak esanguratsuak izan daitezke⁷.
3. **Ingurumen- eta gizarte-sistemez gain, sektore ekonomikoak berak mehatxupean daude eskualde mailan**, klima-aldaketaren inpaktuengatik; gainera, maila globalean eta Europa mailan inplementatutako politiken **eraginpean daude** (modu negatibo edo positiboan).

Klima-aldaketarekin zerikusia duten gaiak **konplexuak eta sektore artekoak** dira, eta horrek **zailtasun asko sortzen ditu inpaktuak neurtzeko** edo arazoaren dimentsioa eskualde mailan ezagutzeko. Horregatik, garrantzi handiagoa eman behar zaie neurrien **malgutasun, multifuntzionaltasun edo itzulgarritasun** kontzeptuei, estrategia egokiaren diseinu zein inplementazioan.

EAEko klima-politikak ere baditu zailtasun eta aukera potentzial horiek; beraz, badirudi forma berri bat eskatzen duela estrategia bat alor horretan diseinatzeko eta inplementatzeko.

Estrategia berriak izan litzakeen ezaugarri batzuk jarraian aipatuko dira, inolako lehentasun-ordenarik gabe:

1. Klima-aldaketa moteltzearekin eta bertara egokitzearekin zerikusia duten gaien buruzko **ikuspegi integratua** izatea.
2. Autonomia Erkidegoko klima-aldaketarako politikak **lidergo konpartituko** ikuspegi batez bultzatzea, hau da, Foru Aldundiekin, Udalekin, elkarteekin eta herritarrekin batera, nazioarteko eta estatuko politika eta sareekin lotuz.
3. Modu egokian erabiltzea Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarean dagoen **ezagutza zientifiko-teknikoa**, ikerketa-ildo horiek irmotasunez eta etenik gabe sostengatzeaz batera. Horrek barne hartzen du klima-aldaketaren ondorioei

⁷ Lehiakortasunaren gaineko inpaktuez gain, kezkarriak dira karbono-ihesarekin zerikusia duten kontuak, alegia, klima-politikak berak eraginkortasuna galtzea jarduera ekonomiko batzuk deslokalizatzen direlako, araudi laxoagoak dituzten eskualdeetara joanez, horren ondorioz emisio globalak igoaraziz.



buruzko jarraipen-ekintzak abiatzea eta epe luzera mantentzea, ondorio horiek gertatzen diren eremuetan.

4. Hobeto adierazi behar dira aukeran dauden neurrien **kostu/eraginkortasun erlazioa**, horien **banaketa-inpaktuak**, eta **jarduera ekonomikoa** eremu horretan **sortzeko ahalmenaren aprobetxamendua** (EAetik kanpoko eremuan sortzen ari diren finantziario aukerak barne sartuta).
5. Ahalegin garbi bat **tresna politiko berritzaileak** diseinatzeko eta implementatzeko; adibidez: araudiaren garapena edo tresna fiskalak.
6. Plangintzak **genero-ikuspegia** txertatu behar du bere plangintza, gauzpen eta ebaluazioaren fase guztietan.
7. Arreta berezia zuzentzea **parte-hartzerako mekanismoei eta** interes-agente guztien **erantzunkidetasun** kontzeptuari, bai neurrien diseinuan eta bai haien inplementazioan. Alde horretatik, emakume eta gizonen ordezkariak orekatua bultzatuko da.
8. **Gidalerro eta irizpideen** oinarri sendoa eskualde mailan, geroago tokiko politikak ondorioztatu ahal izateko oinarri horretatik.
9. Arreta berezia zuzentzea lan honetan **lehentasunezko** gisa identifikatu diren **sektoreetara, baita azterketan erabilitako irizpideetara ere**. Ondorengo taulan, emaitza nagusien laburpen bat erakusten da.



1.Taula: Klima-aldaketa moteltzeko eta bertara egokitzeko neurriak aztertzeko irizpideak eta alor horretan lehenetsitako sektoreak, EAEren eremuan

Iturria: geuk prestatuta

	Irizpideak	Sektoreak
Moteltzea	Jarduteko gaitasuna , hau da, klima-aldaketa mugatzeko dauden aukerak, bai sektore publikotik eta bai pribatutik BEGen emisioak	Garraioa, Energia (ekoizpena eta kontsumoa), Industria
Egokitzeta	Sektorearen urrakortasuna klima-aldaketaren aurrean, hartzaileen sentsibilitatearen eta egokitze-ahalmenaren funtzio gisa, eta klima-aldaketaren inpaktuekiko esposizioa kontuan hartuta. Garrantzi estrategikoa (ekonomikoa, ingurumenezkoa edo soziala) EAErentzat, epe labur, ertain eta luzera.	Sektore gehienek garrantzi estrategiko berdintsua dute; urrakortasun aldetik, berriz, handiagoak dira desberdintasunak. Alde horretatik, Baliabide Hidrikoak, Hiri-ingurunea eta Kostaldea nabarmentzen dira.

Klima-aldaketaren aurkako estrategia on batetik ondorioztatzen diren aukeretako batzuk hauek dira: karbono gutxiko ekonomia erresilientera zuzendutako bide-orria; klima-aldaketari lotuta sor daitezkeen itzulkin ekonomikoak eta lehiakortasuna (alderdi hauen bidez: ekoizpen-ehunaren modernizazioa; aberastasuna eta enplegua sortzea; eraginkortasun handiagoa baliabideen eta energiaren erabileran; “Euskadi marka” hobetzea; esportaziorako gaitasunak hobetzea; produktu berritzaileak garatzea, klima-aldaketaren ondorioei errentagarritasuna ateratzeko; euskal enpresen ospea hobetzea; eta kanpoko finantziazio-iturriak aprobetxatzea); erronka estrategikoei Herrialde mailan heltzea, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-sistemen egokitzapenaren ikuspuntutik (jarduera ekonomikoa lurraldearen barnean eta hortik kanpo sortzearen bidez, oraingo jarduera ekonomiko eta industrialaren iraupena bermatzeko; klima-aldaketaren inpaktuei lotutako aurrezpen ekonomikoak; banaketaren inpaktuak mugatzea); eta balizko itzulkin ez-ekonomikoei errentagarritasuna ateratzea, zenbait sektore eta eragilerentzat (publikoak eta pribatuak) – ikusgaitasuna, posizionamendua, eta abar.-



2. TESTUINGURUA

Dokumentu hau 2014ko hasieran bukatutako “Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana egiteko Fokalizazio estrategikoa” dokumentuaren laburpena da”⁸. Egindako azterlana 7 ataletan egituratu zen, bost Eranskinekin: (1) Fokalizazio estrategikoa, (2) Nazioarteko testuingurutik tokiko testuingurura, (3) Gure esparru instituzionala, (4) Euskadiren konpromisoa BEGen emisioen murrizketarekin, (5) Inpaktuak eta egokitzapena, (6) Azterketa eta lehentasunak: aldaketarako gakoak eta (7) Konpromiso, ikuspegi, erronka eta helburu estrategikoen definiziorantz (I. Eranskina: EAEko klima-aldaketari buruzko politika sektorialak, II. Eranskina: Klima-aldaketarekin zerikusia duten EAEko instituzioak, III. Eranskina: EAEko klima-aldaketak, IV. Eranskina: EAEko klima-inpaktuak eta V. Eranskina: Metodologiaren xehetasunak).

Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana Lantzeko fokalizazio estrategikoa



tecnalia
Corporación Tecnológica

factorco

bc³
BASQUE CENTRE
FOR CLIMATE CHANGE
Klima Aldaketa Itzega

neiker
tecnalia

azti
tecnalia

LIMIA & MARTIN
Medio Ambiente

Universidad
del País Vasco

Ekialdeko Herrialde
Unibertsitatea


Basque Centre for Climate Change
Klima Aldaketa Itzega

1. Irudia. Fokalizazio dokumentuaren azala. Informazio gehiagorik nahi izanez gero, dokumentu osoa eskatu behar zaio Ihoberi.

⁸ Xehetasun gehiago nahi izanez gero, “Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana egiteko fokalizazio estrategikoa” izeneko azterlan osoa kontsulta daiteke, dokumentua Ihoberi aurretik eskatuta.


Fokalizazio Estrategikoa lantzeko prozesuak logika hau izan du:

- Lan Talde bat eta Batzorde Tekniko bat eratu dira, lanak kontrastatzeko. Fokalizazioan lortuz joan diren emaitzak lan-tailerretan aurkeztu dira; tailer horiek bereziki diseinatu dira informazioa emateko, Jaurlaritzaren eta udalen aldetik feedbacka jasotzeko, eta hurrengo urratsen hasiera eta orientazioa baliozkotzeko.



2. Irudia. Fokalizazio Estrategikoa lantzeko prozesuaren deskribapena

- Lan, mugarri eta bileren sekuentzia ondoren adierazten dena izan da, Lan Taldean 30 pertsona inplikaturik egonda (nodoek 3 erronda egin dituzte fitxak berrikusteko; nodoek txostenaren zirriborroaren berrikuspen bat egin dute; eta Talde Eragileak txostenaren zirriborroaren 3 bertsio egin ditu); eta guztira 19 bilera eginda (Lan Taldeak 3 egin ditu, Talde Eragileak 10, Koordinazio Instituzionalak 3 jarraipen bilera; eta Batzorde Teknikoak 3)



3. Irudia. Fokalizazio estrategikoaren lan, mugarri eta bileren sekuentzia.

Ondorengo atalean, deskribatutako prozesuan lortutako emaitzak laburbiltzen dira.

3. AZTERKETA ETA LEHENTASUNAK: ALDAKETARAKO GAKOAK

Atal honetan, fokalizazio-prozesuan egindako diagnostikoaren azterketa, balorapena eta ponderazioa jorratzen dira; halaber, haien interpretazioa ere jorratzen da, aldaketarako eta EAEko Klima Aldaketaren etorkizuneko Estrategiaren fokalizazio estrategikorako gaketzat hartuta.

Lehenik eta behin, kontuan hartuta instituzioak ahaleginak egiten ari direla BEGen emisioen maila jaisteko eta klima-aldaketak sektore sozioekonomiko bakoitzean edo sistema ekologiko bakoitzean sortzen dituen inpaktuak murrizteko, lehenengo asmoa izan da ahalegin horien eta beren garrantzi erlatiboaren inguruko eztabaida nolabait argitzea; horregatik, alderdi horiek baloratzeko eta ponderatzeko irizpide batzuk aukeratu dira, bai moteltze-sektoreentzat (ikus 4. Atala) eta bai egokitzapen-sektoreentzat (ikus 5. Atala)⁹. Hainbat adituk baloratu egin dituzte irizpide horiek *Delphi* metodoaren teknikan oinarritutako lan planteamendu baten arabera; hori osatzeko, irizpide anitzeko azterketan oinarritutako metodologia bat ere erabili da.



Hemen aurkezten diren emaitzek lan hau prestatzen aritu diren pertsonen iritzi aditua islatzen dute, eta, beraz, horrela interpretatu behar dira. Metodologiak bidea eman du konklusio batzuk adosteko, hau da, EAEko klima-aldaketaren aurkako estrategia lantzeko prozesua gida lezaketen konklusio batzuk adosteko. Edonola ere, azpimarratzekoa da bai metodologiak ezarritako mugak (adibidez: sistemak modu independentean baloratu izana) eta bai sektore (hiri-sektorea, adibidez) eta inpaktu batzuen zeharkako izaerak ikuspegi integratzailea azpimarratzea eskatzen dutela, jarduera konkretuak diseinatzerakoan. Ñabardura hori argituta, hasierako konklusioak aurkeztuko ditugu jarraian.

1.Koadroa: Sektoreen balorazio eta lehenespeneren hasierako konklusioak, klima-aldaketa moteltzeari eta bertara egokitzeari dagokionez.

Iturria: geuk prestatuta.

1. Atxikita dituzten emisioen ikuspuntutik, **lehentasunezko** sektoreak **energia** eta **garraioa** dira; ezaugarri estrukturalen ikuspuntutik, berriz, etxebizitzaren eta zerbitzuen sektorea eta industria sektorea nabarmentzen dira. Bukatzeko, jarduteko ahalmenari dagokionez, garraio sektorea de garrantzitsuenak. Azkenik, irizpide konbinatuak ponderatzerakoan, ikus daiteke garraioa dela gehien nabarmentzen dena, lehentasunezko sektoreen artean, eta haren ostean energia eta industria sektoreak.
2. Egokitzapenari lotutako gaiak, berriz, gutxienez 7 balorazio-irizpidetan oinarritutako ikuspegi bat exijitzen dute, gai horien inguruko ikuspegi integratuago bat lortzeko. Lortutako emaitzen artean, azpimarratzekoa da garrantzi handiago hartzen dutela **urrakortasun** irizpideek eta **garrantzi estrategikoak**, eta garrantzi txikiagoa **ekitatearekin** eta **jarduteko zailtasunarekin** zerikusia duten irizpideek. Erdian geratzen diren irizpideak, berriz, **jarduteko ahalmena**, **potentziala** eta **onura ekonomikoak** dira.
3. **Urrakortasunaren** eta **garrantzi estrategikoaren** kasuan, badirudi irizpide horiek alderdi hauek nabarmentzen dutela, orokorrean: baliabide hidrikoak, kostaldea, baso-sektorea, eta hiri-ingurunea eta lehorreko ekosistemak. Bigarren irizpideak, gainera, gainerako sektoreen garrantzia ere aipatzen du, baina pisu txikiagoa ematen die sektore hauei: lehorreko ekosistemak eta turismoa, abeltzaintza, basogintza eta nekazaritza.
4. **Jarduteko ahalmena** nahiko handia eta homogeneoa da sektore guztien artean (zalantzarik gabe, hori gertatzen da Euskadik oso eskumen kopuru handia duelako), itsas ekosistema eta baliabideen kasuan izan ezik. **Potentzialari** eta **onura ekonomikoari** dagokionez, badirudi pisua handi samarra dutela; sektore energetiko eta industrialak beren potentzial handiagatik nabarmentzen dira, eta itsas ekosistema



eta baliabideak beren potentzial txikiagatik. Baliabide hidrikoak, azpiegitura linealak eta hiri-ingurunea, berriz, beren pisu ekonomiko handiagatik nabarmentzen dira.

5. **Ekitatearen** kasuan, sektore gehienek inpaktu desberdinak aurreikusten dituzte; dena dela, agian garrantzi txikiagoarekin lehorreko ekosistemak, kostaldea, osasuna eta azpiegitura linealak nabarmentzen dira, garrantzi ertainarekin. **Jarduteko zailtasunei** dagokienez, sektore guztiak nabarmentzen dira jarduteko erraztasunagatik, hau da, adituek baloratu dute badirela erraz inplementa daitezkeen neurriak, bideragarriak ere izan daitezkeenak.

Balorazio integratuan, sektore hauei ematen zaien **garrantzia nabarmentzen da: Baliabide hidrikoak, Hiri-ingurunea, eta Kostaldea**, batez ere Urrakortasun eta Garrantzi Estrategikoaren irizpideei eman zaien garrantzi erlatibo handiagoagatik (guztizkoaren ia % 45).



4. KONPROMISO, IKUSPEGI, ERRONKA ETA HELBURUEN DEFINIZIORANTZ

Txosten hau abiapuntu bat da Eusko Jaurlaritzaren sailen, beste instituzio batzuen edo beste funtsezko eragile batzuen interlokuzio eta inplikaziorako. Lan-taldeak egindako azterketa oinarritzat har daiteke, maila instituzionalean, klima-aldaketaren alorrean jarduteko estrategia sendo bat Euskadin eraikitzeko.

Era horretan, 2. atalean aurkeztutako azterketak iradokitzen ditu, nolabait, **hausnarketa estrategikoaren prozesuaren baitan funtsezkotzat** har litezkeen **zenbait gai**, EA Eren testuinguruan.

1. Koadroa: Konpromiso, ikuspegi, erronka eta helburu estrategikoen definiziorantz

Iturria: geuk prestatuta.

1. Klima-aldaketa **moteltzearekin** zerikusia duten gaietan, EA Eko tamaina txikiak **kanporantz zuzendutako ikuspegi aktibo eta kolaboratzailea** eskatzen du, arreta berezia zuzenduz **Europar Batasunaren** politikei eta **nazioarteko testuinguruari**; alde horretatik, ahal den neurrian, eskualde-ikuspegia defendatu behar da, batez ere Euskadiko interesak Estatuaren esparruan defendatzearen bitartez, ahaleginen banaketari dagokionez. Horrek guztiak eskatuko du lurraldean existitzen diren ahalmen instituzionalak bultzatzea eta orain presentziarik ez dutenak garatzea.
2. **Egokitzapenarekin** zerikusia duten gaiei dagokienez, berriz, badirudi komenigarria dela ekintzen **malgutasun, itzulgarritasun eta multifuntzionaltasunaren** ¹⁰ alde egitea, *low-regret* eta *win-win* neurrien testuinguruan. Gomendagarria da, halaber, **egokitzapenaren mugak ezagutzea, eta baita neurrien kategoria guztiak** ¹¹ ere, **egokitzapen txarra** sor lezaketen jokabideak saihestez batera.

¹⁰ Arriskuak edo inpaktuak eremu edo sektore batzuetan aldi berean minimizatuko lituzketen ekintzak dira; horrek ahalbidetuko luke azpiegitura berdeen kontzeptua sendotasunez txertatzea (hiri-eremuetan ere), ingurune naturalaren eta ingurune antropizatuaren interesak uztartzen dituzten irtenbide gisa, beste irizpide batzuk betetzea ahalbidetzeaz batera, hala nola malgutasuna edo kostuaren eraginkortasuna.

¹¹ Adibidez: publikoa edo pribatua (eragileen izaeraren arabera), lokalizatua edo sakabanatua (ikuspegi espazialaren arabera), neurri bigunak edo gogorrak (azpiegituretako edo ingeniarietako irtenbideak versus irtenbide leunagoak), jokabide, azpiegitura, instituzio, finantza, araudi edo informazioaren eremuko neurriak (neurrien forma oinarritzat hartuta) edo *win-win* (irabazi-irabazi), *low-regret* edo *no-regret*



3. Beharrezkoa da **definitzea eta modu integratuan aztertzea klima-aldaketa moteltzeko eta bertara egokitzeko politika eta neurriak**, aurreko atalean azpimarratutako gaiak esploratu ahal izateko.
4. Ikuspegi integratuak, gainera, **barnerantz begiratzea eskatuko du**, eta **bereziki azpimarratu beharko da eskumen, gaitasun eta ezagutzen koordinazioa eta integrazioa**, maila instituzional desberdinen artean: Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak. Edo **integrazio horizontala** ere bai, interes-agente (*stakeholders* ingelesez) garrantzitsuen artean (enpresak, sindikatuak, ZTES, eta abar.).
5. **Ziurgabetasun gradua handia, informazio osatugabea eta kausaltasun-erlazio sendoak** gai askotan **ezartzeko zailtasunak** kontuan hartuta, badirudi garrantzitsua dela: (a) aurrera egiten jarraitzea oinarrizko ezagutzan eta ezagutza bikain aplikatuan, eta (b) **ezagutza hori guztia erabakiak hartzeko prozesuetan txertatzea**, bai prozesu publikoetan eta bai pribatuetan.
6. **Partaidetzako mekanismo eta prozesu** proaktiboen alde egitea, horien bidez bultzatzeko EAEko eragile politiko, ekonomiko eta sozial guztien arteko elkarrenergina, klima-aldaketaren aurkako estrategia baten garapen eta inplementaziorako.
7. **Askotariko tresna berritzaileak inplementatzeko aukera, klima-aldaketari ikuspegi global** eta integratzaile batetik **heldu ahal izateko**; adibidez: arau-esparruaren garapena edo zerga-, ingurumen- eta energia-erreformarako alternatibak.
8. **Sistema hidrikoen, lehorreko sistemen eta itsas sistemen balioa** nabarmentzea, EAEko sistema sozioekonomikoaren malgutasuna eta sendotasuna epe luzera bermatzeko oinarri nagusi bezala. Bestela esanda, horien balioa gaur nabarmentzea da bihar bizirik irauteko baldintza.
9. Esploratzea zer potentzial dagoen karbono gutxiko ekonomiarako trantsizioak eta ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-sistemen sorrerak **jarduera ekonomikoa sor dezaten lurraldean** (eta lurraldetik kanpo); eta esploratzea, halaber, zer neurritan berma dezaketen oraingo jarduera ekonomiko eta industrialaren iraupena.

2008-2012 epealdirako Klima Aldaketaren aurkako Euskal Planak planteamendu estrategiko bat garatu zuen, eta planteamendu horrek, ñabarduraz ñabardura, indarrean jarraitzen du gaur egun. Zehazki, planteamenduari falta zaio modu berezian aipatzea jarduera ekonomiko eta enpleguaren sorrera bultzatzeko beharra; lan hau

aukerak (neurrien ziurgabetasunari aurre egiteko eta/edo gizarte-, ingurumen- edo ekonomia-onuren alorrean jarduteko gaitasunaren arabera).




garatzerakoan, aldiz, oso garrantzitsua da behar hori kontuan hartzea. Beste alde batetik, jarduerak bi bloketan (Moteltzea eta Egokitzea) bereizten duen planteamendu tradizionala gaindituta geratzen ari da, ekintzen tipologia desberdinen artean dauden elkarreraginen ondorioz.

Bi alderdi horiek agerian utzita, planteamendu estrategikoa zentzu honetan eguneratu liteke:

Ikuspegia: Aurrera egitea karbono gutxiko gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-sistema erresilientearen bidean; klima-aldaketaren ondorioetatik blindatuz, emisioak murrizteko mundu-ahaleginei gure ahalmenaren neurrian lagunduz. Eskura dauden aukerak aprobetxatuz berrikuntza, jarduera ekonomiko eta enpleguaren sorrera, eta ekintzailtza ekonomiko eta soziala sustatzeko.

Baldintzak: Inplikazio, Integrazio, Berrikuntza, Inplementazio eta Hobekuntzan oinarritutako estrategia bat.



**Lehentasunak:**

- Ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-sistemen erresilientzia.
- Ekonomia- eta ingurumen-lehiakortasuna.
- Enplegu eta aukeren sorrera.

Helburuak:

1. Europako helburuekin bat etorritik, CO2 emisioak murriztea eta karbono-hustubideak areagotzea.
2. Ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-sistemen egokitze-gaitasuna handitzea.
3. Nazioarteko finantziarioa eskuratzeko eta jarduera ekonomikoa sortzeko aukera berriak aprobetxatzea.
4. Berrikuntza, karbono gutxiko Euskadi erresilientera daraman trantsizioaren motor gisa.

Hori guztia, lehentasunezkoak diren jarduerak soilik identifikatzen dituen planteamendu minimalista baten ikuspuntutik, hiru jarduera-programaren bitartez inplementatu liteke.

1. Programa: arau-esparru berri baterantz. EBko helburuak Euskadiko klima- eta energia-politikan txertatu beharko direnez, aski izan liteke egin beharreko arau-doikuntzak egitea, helburu horiek gure legedira modu egokian ekartzeko. Eta, nahiz eta hori bereziki esanguratsua den Emisio Eskubideen Salerosketari buruzko Zuzentarauak ukitzen dituen sektoreentzat, Europako Batzordea ahaleginak areagotzen ari da murrizketa-helburuak ezartzeko sektore “lauso” deritzanentzat.

2. Programa: “Getting prices right”. Kanpo-kostuak barneratuz. Onartuta dagoenez, klima-aldaketari lotutako arazoen parte handi baten arrazoia da prezioen sistemak ez dituela aitortzen aukeran dauden alternatibek osoko kostuak (ekonomikoak, ingumenezkoak eta sozialak), eta, hortaz, oso garrantzitsua da kanpo-efektu horiek



barneratzea ahalbidetzen duten ikuspegiak bultzatzea. Horrenbestez, kostu horietan eragina duten zerga-kargak, laguntza-programak eta politikak berraztertzea aukera ona da klima-aldaketaren aurkako borrokan aurrera egiteko.

3. Programa: Ezagutza. Ezagutza gehiago sortzea, bai klima-aldaketaren inpaktu eta ondorioei buruz eta bai politiken eraginkortasunari (politika propioak, Estatukoak edo Europakoak) eta haien banaketa-inpaktuei buruz, lagungarria izan beharko litzateke klima-aldaketaren aurkako politika indartzeko. Horretarako, beharrezkoa da goi mailako ezagutza zientifiko eta teknologikoa izatea; halaber, gai izan behar dugu ezagutza modu eraginkor eta ulergarrian transferitzeko kudeatzaile publiko eta pribatuei, interes-agenteei eta gizarteari.

Kontuan hartu behar da asko direla klima-aldaketari aurre egiteko plangintzaren baitan sar litezkeen programa gehigarriak. Hala eta guztiz ere, programa eta ekintza asko izateak ez du ezinbestean bermatzen horien eraginkortasuna, eta, aldiz, oztopatu egiten du lehentasunak modu garbian bistaratzea. Horregatik guztiagatik, lan-taldeak nahiago du minimoen planteamendu bat egitea, hots, lehentasun handikotzat jotzen diren jarduerak soilik jasotzen dituen planteamendu bat.